

GIDA

# KONTSUMO KONTZIENTEA

Donostiarrok parte hartuz  
eraikitzen dugun kontsumoa  
Donostian



**SARETuz**

Donostiako Kontsumo Kontziente eta Arduratsuen Sarea  
*Red de Consumo Consciente y Responsable de Donostia*

## 1. AURKEZPENA

Saretuz Donostiako Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen aldeko Sarea da. Kontsumo kontziente eta eraldatzailea, eraikitzen duen kontsumo bat dela pentsatzea gustukoa dugu, era berean amesten dugun gizartean bizi ahal izateko oinarritzkoa den estrategia eta tresna bat da: bizitza erdigunea den eta ekonomia bere zerbitzura dagoen gizarte bat, justizian, emakume eta gizonen arteko eta herrien arteko berdintasunean, solidaritatean, naturarekiko orekan, konpromisoan, lankidetzan... oinarrituta, zaintzak banatuta dauden gizartean oinarrituta.



*Gure helburua kontsumo kontzientearen irizpideetan sakontzea da, Donostian dauden aukerak eta ekimenak hedatu, beste batzuk sustatu, atzetik lanean jarduten duten erakunde eta kolektiboak ezagutzera ematea...*


Saretuz eraldaketarako eta emantzipaziorako 2012 urtetik Donostiako udaletxeak laguntzen duen hezkuntza ekimen bat da. Sare honetako "talde eragilean" 11 erakunde, kolektibo eta elkarte inguru parte hartzen dute: Emaús Gizarte Fundazioa, Mugarik Gabe, Calcuta Ondoan, Gabiltza Veterinarios sin Fronteras, Donostiako Bidezko Merkataritza taldea, Economistas sin Fronteras, AntiguOttarrak, Cristina Enea Fundazioa, Fiare (banku etikoa);

era berean, beste 15 erakundeekin harremanetan gaude: Setem Hego Haizea, Otarra Bioelkartea, Basque Culinary Center-eko elikadura kontziente Kluba, Ekologistak Martxan, Donostiako Zinemaldia, Ximaupila eta Ekoliderrak sarea, Aingura Kofradia,...

Berriki, Banda Bat, Slow Food, Surfrider eta Egiako Kontsumo Taldea erakundeak Sarean sartu dira.

Daratzamagun hiru urte eta erdiko ibilbide honetan hirian tartetxo bat egitea lortu dugu, eta Sarera kolektibo eta ekimen gehiago barneratzen joatea espero dugu.

Gure helburua kontsumo kontzientearen irizpideetan sakontzea da, Donostian dauden aukerak eta ekimenak hedatu, beste batzuk sustatu, atzetik lanean jarduten duten erakunde eta kolektiboak ezagutzera ematea... Baina hori ez da guztia, taldeka egiten den lanetik abiatuz ikasi egin nahi dugu, sarea izaten ikasi, partekatzen ditugun gure interesetatik ikasi, koordinaziotik ikasi, inklusiotik ikasi, nola parte hartu ikasi, metodologiak, zaintzak... ikasi. Benetako erronka bat.




Sarea izaten ikasi

Donostian geroz eta aukera arduratsu gehiago dago, produktu edo zerbitzu bat lortzeko, aldatzeko edo erabiltzeko, irizpide arduratsu eta kontzienteekin. Arrazoi hau dela eta gida hau argitaratu nahi dugu, zertzelada txiki batzuk eman ahal izateko eta produktu eta zerbitzu desberdinen kontsumoaren inguruan hausnartu eta hirian aukera hauek ezagutzera eman ahal izateko. Kontsumo ohiturak aldatzeko prest dauden, geroz eta pertsona, erakunde, kolektibo, instituzio, etab. gehiago sartzeko asmoarekin, bakoitza bere erritmoan eta zergatik ez, aukera eta posibilitate, proiektu, etab. berriak amestuz, sortuz, asmatuz, gauzatuz joatea.

Gida hau ez dago amaituta. Gida dinamiko bat dela ulertzen dugu, etengabe

“eraikitzen” ari dena, Sarean taldekako lanaren emaitza delako.

Zuek ere zuen ekarpena egin dezakezue. Kontsumo kontziente eta arduratsuaren irizpideak betetzen dituzten eta gidan jasota ez daudela uste duzuen, edozein iradokizun, proposamen egin dezakezue, edo beste ekimen batzuk ezagutzera eman. Oso erraza da, **www.saretuz.com** web atariaren bitartez edo **saretuz@gmail.com** helbidean gurekin harremanetan jar zaitezke.

Irakurketaz gozatzea espero dugu, ilusioa sortzeko gai izatea eta zuen kontsumo ohiturak poliki-poliki aldatzen joateko konpromisora eramateko gai izatea espero dugu, gizarte justuago eta berdina bat lortzeko. 

## 2. GURE GIZARTEA, HAINBAT DATU ETA SARETUZ SAREAREN POSIZIONAMENDUA

Donostian, gure herri eta hiri gehiengat bezala, kontsumismo eroso, neurri-gabekoa, pertsona bezala gure benetako beharretatik urrundutako dagoena eta gure gertuko eta urruneko inguru-nearekin eta etorkizuneko belaunaldiak arduragabea den kontsumismo bat ezartzen joan da. Merkatal gune izugarriak, banaketa kate erraldoiak eta nazioarteko markak hiri erdian eta kanpoaldean sortzen joan dira, dendari txikiak eta baserritarrak beraien dendak eta nekazal ustiapenak itxi behar izan dituzte, hurrenez hurren.

Honekin eta hazkunde ekonomikoarekin batera, gure kontsumo mailak handituz joan dira eta horrekin batera sortzen dugun hondakin maila ere. Gaur egun hondakin horiek kudeatzea zaila egiten zaigu eta gure ikuspuntutik, eztabaidaren giltza hondakin hauek nola murriztu behar ditugun izan beharko luke.

Kontsumismo hau eta euskarrizten duen sistema produktibo guztia neurri handi batean, baliabideen, erregai fosilen eta berriztagarriak ez diren


energien menpe dago eta gure ekosistema larriki narriatzen dute. Hori horrela izanik, planeta eta planetak dituen baliabideak amaigabeak balira bezala kontsumitzen eta ekoizten dugu. Baina dakigun bezala, hori ez da horrela, amaitu egiten dira, oso azkar murrizten ari dira, geroz eta zailagoa da hauek lortzea eta momentuz, planeta bat baino ez daukagu. Baliabide mugatuak dituen planeta batean ez da jasagarria egungo ekoizpen eta kontsumo sistema bat.

*Ingurumenaren gaiaz gain, gizarte gaia ere badago, hau da, kontsumitzen dugun hori nork eta zein baldintzetan ekoiztu duen galdetu beharko genioke geure buruari.*

Aztarna Ekologikoaren Sare Globalak (Global Footprint Network, edo GFN) urtero, populazioaren urteko eskaera edo kontsumoak, naturak urte betean berriztatu ahal duena gainditzen duen

data estimatzen du. 2014 urtean, egun hori, Lurraren Gehiegikeria Eguna bezala ezagutzen dena, abuztuak 19 da. Hau da, Lurrak berriztatu ahal duena baino azkarrago kontsumitzen dugu. Egundak honetatik aurrera, etorkizuneko belaunaldietako baliabideak kontsumitzen ari gara. Urte amaierarako mailegu bat eskatuko bagenu bezala da, ordainduko ez duguna eta gainera, aurreko urteetako eta etorkizuneko maileguekin pilatzen joaten da.

Baina ingurumenaren gaiaz gain, gizarte gaia ere badago, hau da, kontsumitzen dugun hori nork eta zein baldintzetan ekoiztu duen galdetu beharko genioke geure buruari. Hemen gauza asko ikus ditzakegu, askotan produktu hauek milaka kilometrora ekoizteaz gainera (ba al dakizue sagar batek 10.000 km egin ditzakeela ahora sartu aurretik?), gure erosketen zati handi bat beraien lan eta giza eskubideak zaurtuta izan dituzten baldintzak izan dituzten langileek ekoiztu dituzte, batez ere langile emakumeek ekoiztu dituzte



Lurrak berriztatu ahal duena baino azkarrago kontsumitzen dugu.

eta batzuetan esplotazio eta esklabotasun egoeretan. Hau da hain urrun fabrikatutako produktuen prezio merkearen arrazoietako bat eta hemendik abiatuz sortzen da kontsumitzen dugun horren balio erreal bat emateko eta prezio justu bat ordaintzeko beharra. Eta arazo hau, hemen ere gertatzen da. Krisiaren aitzakiarekin soldatetan, zerbitzuetan, lan eskubideetan murrizketak egiten ari dira, ingurumena orain hain garrantzitsua ez dela ulertzen da, prekarietatea goraka doa eta pobrezia-aren datuak beldurtu eta lotsarazi egiten dute (Gipuzkoan 29.000 pertsona baino gehiago daude pobrezia arrisku larrian, EUSTAT). Beste herrialdeetan gertatzen zen zerbait izatea utzi du, inoiz horrela izan bazen ere. Ondorioz, bidezko merkataritzako produktuak euskarritzen diren proposamena dator, beste zenbait arrazoien artean, ekoizten duten pertsonentzat lan baldintza duinak bermatzen ditu eta Donostian eskaintzen dituzten denda, elkarte eta kolektibo desberdinen bitartez lor ditzakegun beste alternatiba bat dira.

Osasunari ere aipamena egin behar zaio. Geroz eta antsietate, frustrazio, depresio, bakardade, menpekotasun, ludopatia, etab. maila handiagoak direnak geroz eta ezagunagoak dira. Baina baita adin emankorrean dauden emakumeetan (eta izan ditzaketen seme-alabetan) intsektizidek sortzen dituzten eraginak ere, ur edangarria eskuratzea, plastikoa jateagatik hiltzen diren tamaina guztietako arrain eta hegazti kopurua.

Azpitarratu behar da ere kontsumismoa emakumeen eta gizonen artean ematen diren erlazio desberdinetan barneratzen dela. Produktu askoren publizitatea sexista da: emakumeak etxeko eremura eramaten ditu, garbiketara, zaintzak eta edertasunarekin erlazio-natutako erosketak egitera (ezinezkoa eta osasuntsua ez den edertasun eredu baten bitartez presio estetiko ezarriz), bere gorputza saltzeko baliagarria den "objektu" bat da, sexualizazioa argia da; eta gizonetan lehiakortasuna eta kostu handiagoko erosketak sustatzen ditu, autoak edo teknologia bezala. Hori horrela izanik, ildo beretik eta ingurune gertuenean galdetu beharko genuke, mota bakoitzeko erosketak norke erabakitzen dituen eta ohikoan norke erosten duen zer. Modu horretan, eragin kulturalak eta genero estereotipo eta rol horiek gure eguneroko kontsumo ohiturak baldintzatzen dituzten ikusiko dugu.



*Azpitarratu behar da ere kontsumismoa emakumeen eta gizonen artean ematen diren erlazio desberdinetan barneratzen dela.*

Horrez gain, ez dugu ahaztu behar emakume baserritarrek izan duten funtsezko papera gure inguruko bertako ekonomiaren oinarri bezala. Beraiek, nekazari bezala elikagaien ekoizpenean lan egiteaz gain, rol erreproduktiboa ere bere gain hartu dute, pertsonen zaintza, etxeko ekonomia kudeatzea, harremanak mantentzea, sareak ehundu, etab.

## **Mundua geratzea... Gu jaitsi egingo gara eta...**

Aipatutako guztiaren aurrean, geroz eta erakunde, kolektibo eta maila indibidualean doazen pertsona gehiago dira, Donostian laguntzarik gabe, modu kolektiboan kontsumitzea, aurrezte eta bizitzea posible dela uste dugunok, eta sozialki eta ingurumenari dagokionez jasangaitza den egungo ekiozpen eta kontsumo sistema zapaltzailearekin bat ez datozen beste irizpide batzuetan oinarrituz.



*Donostiako Saretuz Saretik, gure bizitzen gaineko Boterearen zati bat berreskuratu dugula konturatu gara.*

Gure kontsumo ohiturak, gure erosketak eta gure ez erosketak, guztiok eskura ditugun tresna bat eta botere bat dira, pertsonen, gizarteen, ekonomiaren, harremanen, zaintzen, etab. eraldaketa errealean aldaketa errealak bultzatzeko.

## **Zer proposatzen dugu?**

Donostiako Saretuz Saretik, gure bizitzen gaineko Boterearen zati bat berreskuratu dugula konturatu gara. Aske ginela uste genuen, marka, itxura, tamaina eta kolore kopuru handi baten artean aukeratu ahal genuelako, urtarrilean tomateak eta croissant egin berriak jan genitzakeelako.

Baina, kontsumoaren inguruko hausnarketa egiten hasi ginenean, horren atzean dagoena eta noren alde egiten duen, marka guzti horien atzean elikaduraren 4 edo 5 multinazional handi daudela aurkitu genuen, urtarrileko tomateak hemendik milaka kilometrotatik ekarriak direla eta gozogintza industrialean erabiltzen den palma olioaren erabileraren ondorioz, milaka pertsona beraien lurretatik kanporatuak izaten ari dira, esku lan merkea bezala esplotatuak izaten ari dira, bereziki emakumeak eta adin gabeak, ekologikoki hondamendia da, palma landatzeko bertako biosfera suntsitzen da...

Eta horrela, imajina ditzakegun adibide guztiak, ez bakarrik elikadurarekin, gainontzeko gauzekin ere: informatika, automobilismoa, energia, finantzak eta bankua, etxe-tresna elektrikoak, arropa, etab.


Baina antzezleku honek ez gaitu larritu eta geldiarazi (informazio erreal eta egiazkoa izatearen arriskueta) bat "ezin da ezer egin" pentsaraztera eramatea da). MOBILIZATZERA eraman gaitu: tirania eta bidegabekeria honen aurrean, Saretuz Saretik ekonomiaren birlokalizazioa, zirkuitu laburrak, konfiantza erlazioak, informazioa eta informazio hau eskuratzea, errekonozimendua, emakumeek burututako lanaren balorizazioa, zaintzen banaketa berdina... eta nola ez, gizartearen eraldaketara eta bertan bizi diren pertsonen emantzipaziora eramaten dituzten kontsumo kontziente eta arduratsuak.

**Kontsumo Kontziente eta Arduratsua,** egungo ekoizpen eta kontsumo ereduaren inguruan galderak egitetik eta pertsonak bezala gure beharren birplanteamendutik hasten den hori da, eta gure ondasunen, elikagaien eta zerbitzuen kontsumo ohituren murrizketa eta aldaketa batekin jarraitzen du. Alternatiba jasagarriak, bertakoak eta gertukoak bultzatzea bilatzen du eta elikagaien kasuan ekologikoak eta garaikoak izatea ere, beraien ekoizpean eta garraioan izan dezaketen ingurumenaren eragina gutxitzeko helburuarekin. Horrez gain, pertsonen, herrien, ipar eta hegoaren eta emakume eta gizonen arteko gizarte desberdintasunak mantentzen dituen sistema batekin kritikoa da. Hori guztiarekin, desberdintasun horiek nabarmentzen ez dituen eta solidarioa, justua eta berdintasuna lantzen dituen ekoizpen eta kontsumo eredu baterantz gizarte aldaketa bat sustatzea bilatzen du.

**Eraldatzailea** ere bada, pertsonak eta kolektiboak ere gizartearen egituraren aldaketa errealak sustatzen dituztelako. Eta **burujabetza** esperientzia bat da,


pertsonak burujabetu egiten direlako, hau da, beraien eskubideak ezagutzen dituzte, burutu eta eskatu egiten dituzte.

Korronte eta ideia asko dira definizio honekin jasotzen edo erlazionatu daitezkeenak.



*Kontsumo Kontziente eta Arduratsua, ekoizpen eta kontsumo ereduaren inguruan galderak egitetik eta pertsonak bezala gure beharren birplanteamendutik hasten den hori da, eta gure ondasunen, elikagaien eta zerbitzuen kontsumo ohituren murrizketa eta aldaketa batekin jarraitzen du.*

Elikadurari dagokionez, Elikadura Burujabetzak eskaintzen digun ikuspegiarekin bat egiten dugu, herriek duten eskubidea elikagaien ekoizpen, banaketa eta kontsumo politika iraunkorrak erabakitzeko eta definitzeko egiten dio erreferentzia. Hori guztia ekoizpen txikian eta ertainean oinarrituz, nekazalgoari zuzendutako errespetuan eta elikadura osasuntsu batean oinarrituz. Eta iraunkortasun hori, hain zuzen ere, gertuko elikagaiak, garaikoak eta posible bada ekologikoak sustatzeagatik apustu egitetik pasatzen da. Kontsumo zuzeneko taldeak nekazariak (gizon zein emakume), kontsumo ekologikoko elkarteak, Bretxakoa bezalako azoka tradizionalak, tokiko elikagaien denda txikia edo gure hiri baratza landatzea dira Donostian ditugun aukera batzuk.



Hauen bitartez, gure bizitzako ohitura eta kontsumoaren bitartez Elikadura Burujabetza sustatzeko. Modu honetan, gure ingurua sendotzen dugu, baserri-tarrak, ekonomia, kultura, gure hiririari, herriari eta bertan bizi direnei bizitza emanez, ingurune naturala eta bizia...

Beraz, Elikadura Burujabetzak gaur egun nagusi den ereduaren guztiz aurkakoa den eredu bat proposatzen du. Elikagaien ekoizpena eta salmenta, botere guztia duten enpresa transnazioal kopuru oso txiki baten eskutik kontrolatua dagoen eredu bat eta etekin ekonomikoen lorpenera bideratuta dagoen eredu bat, ez pertsonen beharrak asetzera bideratuta. Horra hor, munduan gosea pasatzen ari diren 1000 milioi pertsona egotearen arrazoia, baita nekazalgoari eta herri indigenei beraien lurraldeak kendu eta beraien lurraldeetatik kanporatuak izatearen arrazoia.

Egoera desberdinen ondorioz (adibidez klima bezalako egoera bat), erlatiboki gertu landatu edo ekoiztu ezin eta urruneko lurraldeetatik esportatu behar diren elikagai guzti horientzako, lehen aipatutako Bidezko Merkataritzako produktuak, Donostian gure eskura ditugun beste alternatiba bat dira. ■■■

## Nola antolatzen da gida hau?

Sarearen barruan, mota honetako gida batek izan beharko lituzkeen irizpideak eztabaidatzen eta adosten aritu gara. Horrez gain, erosketa bat egiterako garaian edo zerbitzu bat erabiltzeko garaian, gure buruari galdera zerrenda bat egitea interesgarria dela pentsatu dugu. Aurrerago aurki ahal izango duzue.

Beste alde batetik, eta lehen aipatzen genuen bezala, gida hau ez dago amaituta. Urtero gai desberdinen gaineko fitxak gehitzen edo barneratuz joango gara: energia, ekonomia eta finantzak, artisautza, elikadura... Baina, ez dugu "gida tekniko" bat besterik izatea nahi, paraleloki beste fitxa multzo bat barneratu nahiko genuke, esperientzia edo ekintza bat jasangarriagoa izatea ala ez egiten duten baloreak, uneak, etab. plasmatur, zein elementu diren lagungarri direnak: konfiantza, giroa, planifikazio egokia, etab. Guretzat, "sarearen barruan" gertatzen denaren inguruko hausnarketa bat egin ahal izatea garrantzitsua da. Hau da, inkontzientea plano kontzientera eramatea, horrela aztertu eta modu eragingarriago batean erabili ahal izateko.

Jarraian, Saretuz Sarea osatzen dugun erakundeen artean izandako eztabaidaren laburpena aurkezten dugu, Gidarako eta Donostiako Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen Kale-izendegirako markatzen ditugun irizpideen inguruan:



## A. Adostutako irizpideak

(Donostiako kale-izendegian ere aurki ahal izango duzu).



### **BERDINTASUNA**

Emakumeek sustatutako edo/eta berdintasuna bultzatzen duten ekimenak, dendak eta zerbitzuak (berdintasun ziurtagiriak eta planak).



### **BERTAKOA**

Bertako ekonomiaren aktoreek ekoiztutako, banatutako eta saldutako produktuak (distantzia 80 km baino gutxiago), modu horretan komunitateko garapenari eta pertsona ekoizle eta kontsumitzaileen arteko konfiantza eta gertutasun harremanak sortzeari lagunduz.



### **EKOLOGIKOA**

Ekoizpen prozesua modu orekatuan gauzatzen den produktuak edo zerbitzuak, ingurumena eta naturaren zikloak errespetatuz eta pertsonentzako osasungarriak diren produktuei edo zerbitzuei lekua emanez.



### **BERRERABILPENA: Bigarren eskua eta konponketa**

Produktuak berriz erabiltzeko eta beraien bizitza erabilgarria luzatzeko aukera eskaintzen duten dendak eta zerbitzuak, bigarren eskuaren eta konponketaren sustapenetik.



### **ARTISAUTZA**

Modu artisauan gauzatutako produktuak. Artisautza, ofizio tradizionalen sustapen eta mantenu duinari, sormenari, kulturari eta askotan konpondutako material eta objektuen berrerabilpen jasangarriari laguntzen dioten, ekintza material eta soziala bezala ulertuz.



## **BIDEZKO MERKATARITZA**

*Bidezko merkataritza, elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritutako, merkaturatze sistema bat da ohiko sistemaren alternatiba bezala. Nazioarteko eta bertako merkatuan berdintasun handiago bat egotea bilatzen du, arreta berezia jarriz irizpide eta eskubide sozial, lan eta ingurumen irizpide eta eskubideei eta herrien garapen global iraunkorren alde egiten, pobrezia-aren eta desberdintasunen aurka borroka eginez.*



## **EKONOMIA SOLIDARIOA**

*Ekonomia bitarteko bezala –eta ez helburu bezala- aldarrikatzen duten ikuspen eta praktika bat duten ekimenak, dendak eta zerbitzuak, garapen pertsonalaren eta komunitarioaren zerbitzura, pertsonen eta beraien gizarte ingurunearen bizitza kalitatearen hobekuntzaren alde egiten duen tresna bat bezala. Definitzen duten irizpideak dira: integrala, inklusiboa, gizatiarra, orekatua, bertakoa, berdina, lana, lankidetzaz, irabazi asmorik gabe eta ingurumenarekin konpromisoa.*



## **SARETUZeko KIDEAK**

*Sarekoak diren eta sarean aktiboki parte hartzen duten ekimenak, elkar-teak eta erakundeak.*



## **TRUKEA ETA TXANPON SOZIALAK ETA OSAGARRIAK**

*Trukea eta txanpon sozialen erabilera sustatzen duten ekimenak, dendak eta zerbitzuak. Txanpon sozialen eta osagarrien erabilerak, aktore guztiak bertako garapen ekonomikoan eta komunitate guztiarentzako aberastasunaren sorreran inplikazio gehiago izatea sortzen du.*



## **PUBLIKOA DENA**

*Erabilera soziala eta parte-hartzailea egin dezakegun leku, espazio, zerbitzu eta baliabide publikoak; pertsonen beharrei erantzuten dietena, "komuna, publikoa eta partekatua" sentimendu bat sustatuz.*

## **B. Baina, nola egingo dugu? Nondik hasi? Zer egin dezaket?**

Aurretik aipatutako guztiarekin, ez dugu ahaztu behar, Kontsumo Kontziente eta Arduratsu baten bidean, lehen urratsa pertsona bezala ditugun gure beharren inguruko galdeketa batekin hasten dela.

Behar horiek birplanteatu behar ditugu eta benetan nahi duguna eta baliagarria eta beharrezkoa zaiguna, baliagarria eta beharrezkoa ez denetik banatu behar dugu. Hemendik abiatuz, lehen urratsa poliki-poliki gutxiago kontsumitzea da eta berrera-bilpena eta birziklatzearen bideak aukeratzea, mailaka aurreraka doan eta liberatzailea den prozesu pertsonal eta kolektibo batean abiatzea. Hau da, gure planetarentzat eta gure gizartearentzat, bere osotasunean, onura-garriak izateaz gain, gutako bakoitzarentzat ere izatea, kontsumismotik datozen karga guztietatik aske eginez.

Hori horrela, kontsumitu aurretik eta bitartean, gure buruari galde die-zaiokegu:

- Erosi nahi dudan hori benetan behar al dut?
- Erantzuna ezezkoa bada, nola ase dezaket behar hori produktu berri bat erosi gabe?
- Erantzuna baiezkoa bada,
  - Non erosiko dut? Azalera handiko denda batean edo denda txiki eta gertukoa den batean? Zer nolako ekonomiaren alde egiten dut? Norengana doaz merkatu mota bakoitzeko etekinak? Zer nolako gizartea sustatzen du bakoitzak? Bertan lan egiten duten langileen nolako lan baldintzak dituztela uste dut? Emakumeak eta gizonak lan baldintza berdinetan lan egiten al dute?
- Azalera handiko denda batera autoz joaten naiz edo auzoko denda batean egiten dut erosketa?
- Nondik dator erosten dudan hori? Zein bidaia egin du?
- Nola saltzen didate erosten dudan hori? Publizitate sexista erabiltzen al du? Engainatzekoa? Nola dago ontziratua? Ontzietan zer nolako hondakinak sortuko dira?

- Zein baldintzetan fabrikatu da? Ingurumenarekiko erantzukizuna duen enpresa bat da edo oso kutsakorra den bat? Langileen eskubi-deak errespetatzen al ditu, bereziki emakumeena? Bere fabrikazio prozesuan adingabeak erabiltzen dituen ba al dakizu? Etiketak berak edo saltzen dizun enpresak/pertsonak zein informazio ematen dizu?
- Elikagai bat den kasuan, nola landatu edo ekoiztu da? Lurraren edo/ eta animaliaren erritmoak errespetatu al dira edo gainesplotatuak izan dira? Transgenikoa al da? Pestizidak eta antibiotikoak gehitu al zaizkio?
- Produktua erabiltzean, zer egin dezaket zaintzeko eta ahalik eta gehien iraun dezan?
- Behin bere erabilera amaitu denean, konpon al daiteke? Berrerabil al daiteke? Bere birziklatzea ziurtatzen didan sistemarik gertu ba al dago?

*Donostia, 2015eko Urtarrila*

**SARETUZ**

Donostiako Kontsumo Kontziente eta Arduratsuen Sarea  
*Red de Consumo Consciente y Responsable de Donostia*

